


# 🌿 Hitz eta Pitz 🌿

## Abentura Liburuen Biltzarra

Gasteizko Goiuri Jauregia, 2003ko azaroaren 15a.

Partehartzaileak: MARILAR ALEIXANDRE, JESÚS BALLAZ, AINGERU EPALTZA eta, moderatzaile lanetan, XABIER ETXANIZ.



X. Etxaniz: Hiru egun hauetan zehar pentsatzen aritu naiz zer galde ote nezakeen mahainguru honetan eta, azkenean, galdera koordinatu bat egiten hasiko naiz. Gaur egun asko aldatu da abentura kontzeptua. Ez da beharrezkoa abentura bila Himalaiara edo Afrikara joatea; Europako edozein hiriko behe auzoak baino seguruagoak dira haiek. Zentzu honetan, zein da ezagunetik balizkora eginiko aldaketa? Edo, beste modu batera esanda, zer da abentura gaur egun? Lehengo batean esan nuen hemen, gaur egun, sakelako telefonoekin, ez dagoela abenturarik, ezin du inork mendian galdu... Saioak, Aingeruren hitzaldiko pertsonaiak, ez zuen sakelakorik, ala ez zuen hedadurarik?

**A. Epaltza:** Lehenengo bertsioan bazeukan, baina kendu egin nion. Istoria gehiegi nahasten zuela iruditu zitzaidan.

X. Etxaniz: Beraz, non geratzen da abentura? Zer da abentura gaur egun? Nola aldatu da? Lehen, Afrikara joatea zen, gaur...

**M. Aleixandre:** Gaur egun Europara pateraz etortzea da abentura. Europarrak ondo moldatzen dira beti, doazen tokira doazela ere, abenturarik ez izateko. Baina, beste herrialde batzuetako jende askorentzat egunaren bukaerara iristea bera izugarritzko abentura da... horientzat bizi izatea abentura da.

**J. Ballaz:** Kontutxo bat gehitu nahi nuke, hots, bitxia dela orain itzultzen den narratibaren % 77a ingelesetik itzulia izatea. Idazle ingeles edo amerikarren lanak itzultzen dira, edo beste herrialde batzuetakoak baina, betiere, gure inguruetan bezalatsu, abentura aukerarik ez duten herrialdeetakoak. Eta iruditzen zait interesgarria izango litzatekeela, bai, Marilarrek esan duen zentzuan, abentura alderantziz konta dezaketen horien literatura jasotzea. Bitxikeria bat kontatuko dizuet: gure seme bat Complutensean egon zen nazioarteko indarkeriari buruzko biltzar batean eta mutiko angolar baten istorioa kontatu zigun. Hamar urte zituela bahitu egin zuten, gerrillan egon zen, bere laguna hiltzera behartu zuten –bestela bera hilko zuten–,... hogei urte arteko bizimodua kontatu zigun. Azkenean, horrela ezin zuela jarraitu erabaki, maleta hartu, Afrikan iparraldera jo eta Marokora iritsi zen pateraz itsasarte igarotzeko. Orain Madrilen bizi da. Abentura bizi izaten ari den jende hori da Abentura konta dezakeen bakarra.

**A. Epaltza:** Diozuen hori guztia horrela da... Baina badago egunerokotasunaren abentura ere. Duela gutxi, egile argentinar bati irakurri nion oraingo gizonari geratzen zaion abentura bakarra ezkondata egotea dela, eta zioen abentura horren atsedena adulterioa dela. Baina horrez gain, gaur egungo gazteek beren egunerokotasunaren abentura bizi dute nolabait, eta beste mota bateko abentura hori liburuetan islatuta gera daiteke... dragoiak beste batzuk dira... etsaiak beste batzuk dira. Gurasoak izan daitezke etsai, anaia izan daiteke etsai, norbera izan daiteke etsai. Baina abentura... literatura baden bitartean, abentura ere izango da. Liburu guztiek kontatzen dute abentura motaren bat, baita introspektiboenak ere. Eta egunero esnatzen gara, irte ten gara kalera eta eguneroko errealitatea edo eguneroko bizimodu lasaia alda diezaguketen gauzekin egiten dugu topo. Eta gertatzen zaizkigu

gauzak abenturetan sar gaitzaketenak, nahiz eta buru-abenturak baino izan ez.

**M. Aleixandre:** Nik esan dudanean benetako abenturak, Afrikakoak adibidez, afrikar batek bizi izango litzukeenak... beno, tira, uste dut, literatura irudimenaz egiten denez, izan badirela pertsonak mendebaldekoak izanda ere lor dezaketenak enpatia hori eta Afrikan gertatutako abenturak idatzi. Kolonialismoaz egin izan den salaketa beldurgarrienetako bat *Ilunbeen bihotzean* da, Conradena, afrikarra izan ez eta Europak Afrikan egiten zuena –eta egiten duena– salatzen duena. Uste dut baietz, idatz daitekeela hori, idatz daitekeela abentura mota hori.

Egunerokotasunaren abentura ere badago. Lehen aipatu ditut infernu horietako batzuk, eta zuek ere esan duzue gizon batzuentzat ezkondata egotea abentura bat izan daitekeela; baina, emakume batzuentzat ezkon-bizitza abentura bat bezala has daiteke eta emakumearen heriotzarekin bukatu. Idazteke dagoen istorio bat da hori, orain hasi dena idazten.

Lehen emakume protagonistak aipatu ditut eta beste norbaitek ere aipatu du honi buruzkorik eta, argi dago, duela urte batzuk baino kontzienteago garelara orain gai horrekiko. Lehen baino artikulatuago dago orain.

Nobela beltzaren erregistroan sartuko litzatekeen liburu bat idatzi nuen, *Un puñado de tierra*, *Unha presa de terra*, La Voz de Galicia egunkarian Emanaldikako Nobela Saria irabazi zuena. Beno, emanaldikako nobela sari baterako idatzitako liburua da, abuztuan argitaratzen dena, egunean emanaldi bat... baina hilketa-nobela bat izan beharrean, istorioa, zera... hasieran hilda agertzen zen emakumea... bukaeran ikusten zen tratu txarrei buruzko istorio bat zela. Bitxia da nola nobela honekiko kritikari batek ere ez zuen nobelaren dimentsio horren inolako erreferentziarik egin, tratu txarrei buruzkorik, alegia; nobelaren egituraketa literario osoa aztertu zuten, baina kontu hau ez, arlo hori ikustezina baita. Beste



kasu batzuetan, drogei buruzko nobelak adibidez, denek aipatuko lukete testuingurua; baina ez zen hala izan *Unha presa de terra* liburuarekin.

**X. Etxaniz:** Jardunaldiotan behin baino gehiagotan agertu den beste kontu bat hau da: herri ipuinak, herri literaturaren oinarri direnak, ahozko literatura, abentura literaturaren oinarri ere izan daitezkeela. Gemma Lluchek ere, lehenengo egunean, *Star Wars* hizpide zuela, ipuin miresgarrientzat Propppek ezarritako funtzioetan oinarritutako azterketa egin zuen. Esanda dago guztia eta kontatzeko modua al da aldatzen ari dena? Abentura liburu berrietan, lehengo bera kontatzen ari al gara modu oraingoago eta erakargarriagoan? Zein da, gure gizartean, abentura huts-hutsa dakarten liburuen zentzua? Ala, beste zerbait kontatzeko bakarrik ari gara erabiltzen abentura? Irakurlea erakarri eta harrapatu ondoren beste zerbait kontatzeko ari al gara erabiltzen abentura?

**A. Epaltza:** Denetik dago pixkat. Tira... guztia idatzita dagoela... bada, ia dena egongo da

idatzita, baina den-dena ez, idazten baitira oraindik liburuak. Gauza bat argi dago, ordea: abentura nobelen joeretako bat berridazketa da. Lehen agertu ez diren pertsonaiak erabiliz berridaztea. Orain arte azaldu gabeko testuinguruetan emakumea sartzea esate baterako. Hori da abentura berridazteko modu bat. Adibidez, hemen, Euskal Herrian, bertako pertsonaiak asmatu orain arte anglosaxoiarrentzat gordeta zeuden testuinguruetan sartzeko. Literatura berria egiteko beste modu bat da, eta hori, ari gara hemen egiten. Abenturen generoa, eta literatura oro har, etengabe ari da eraberritzen eta, horretarako bideetako bat berridazketa ere bada.

**J. Ballaz:** Niri ere iruditzen zait abenturak kontatzeko formatua aldatu egin dela. Gai honi buruz kalean galdetuko bagenu, gehienek esango lukete abenturak zineman ikusten dituztela eta nahikoa dutela. Eta abentura kupoa zinema-ekin beteta izatearen sentsazio horrek jende as-

kok abentura bila liburuetara jo ez dezan eragiten du.

Aldaketa handi bat eman da, abenturen kontsumo jendetsua zinemaren bitartez egiten da. Honekin lotuta beste literatura mota bat agertu da, lehenengo egunean Gemma Lluhek azaldu zuena *Star Wars*-en inguruan, aldi baterako fenomeno dena, eta ez dakigu zer garrantzi izango duen. Kontua da berridatzi egiten direla, narrazio erara, lehenengo filmeetan ikusi izan diren argumentuak; ez da kalitate handiko literatur generoa izaten baina abenturak irakurtzeko beharra bideratu eta hedatzeko modu bat bada. Kontraesanak ere baditu kontu honek, izan ere istorio bat zinearen bidez kontatzea askoz ere errazagoa baita, azkarragoa, ez du literatur testuan ezinbesteko diren deskribapen elementurik behar.

Lerradura moduko bat dago gaur egun; abentura handiak zineman kontatzen dira eta ez liburuetan, eta abentura hauek liburuetan kontatzen direnean, kontatzen den abentura berari buruzko bigarren hausnarketa kutsua dute. Egungo idazketaren osagai bat dela uste dut; liburuaren semantikoki aberatsa baldin bada batez ere, kontua ez da istorioa kontatzea bakarrik, baizik eta kontatzen diren istorio hauen atzean dagoen hausnarketa.

**A. Ehaltza:** Badira idazle batzuk... Ramon Saizarbitoriak, adibidez, komentatu zuen ez zaiola interesatzen abentura nobela, azken finean kontatzen diren gauza gehienak pasadizo hutsak baitira eta horretarako zinema-aretoetara joaten dela.

Nik ez dut uste abenturena gainbehera datozen generoa denik.

Kontrako fenomeno ere ikusi izan dugu, *Harry Potter*-ena esate baterako. Nire hitzaldia- ren hasieran aipatu nuena ea inor haserretzen ote nuen, baina ezta... Bitxia da kontu hau; *boom* editoriala izan da eta ondoren zinemara igaro da eta, gainera, azken urteotako liburu berrirakurrienetako bat da. Bitxia da, bai; liburuetatik ihesi

dabilen mutiko batek bat-batean 400 orrialdeko liburu bat irensten du eskolan inork agindu gabe. Publizitate hutsa al da? Marketing hutsa? Ez dakit, izan ere marketingak liburu batean funtzio- na baitezake, baina gero bigarrena, eta hirugarrena, eta laugarrena... irteten dira eta mutiko berak berriz egiten du bekatu...

Gainera genero baten berridazketa da hau ere: gaztetan irakurtzen genituen ikastetxe britaniarrena. Genero bat berridazten du idazleak, ikastetxe nagusiena, magia ukitua ematen dio eta beste literatur produktu ezberdin bat irteten da. Etengabe ari gara hori egiten: generoak berridazten, western-arena adibidez. Berriz idazten da western generoa, beste parametro batzuk erabiliz, beste ikuspuntu batzuk, sentiberatasun ezberdina duen irakurle ezberdinarentzat.

**X. Etxaniz:** Ez al dago abentura literaturaren kirisirik? Niri iruditzen zait literatura modernoaren kanonean... literatura modernoaren liburu saritu guztiak (eta ez dezala hau Joanes Urkixok entzun, abentura hutsa den liburu batekin azken Apirila saria irabazi duenak), areago direla errealismo kritikoa, giza gaiak, gai pertsonalak eta abar lantzen dituzten liburuak. Abentura kutsua izan dezakete, baina gaia beste bat da nagusiki; badirudi nolabait alboratua geratu dela abentura, liburuaren osagai nagusi bezala bederen. Hau da, aurreko galderaren haritik, ez al gara erabiltzen ari abentura irakurlea erakarri eta beste istorio bat kontatzeko? Ez al gara genero nagusi bezala abentura baztertzen ari beste korrante batzuk lantzeko?

**M. Alexandre:** Abentura nola definitzen dugun. Gaur egun non dugu abentura nobela? Gaur egun non geratzen da pirata nobela sateliteen garai honetan? Jakina, historikoki egin behar duzu nobela. Hori egin du Xosé Miranda idazle galiziarak *Morning star* liburuan, bidelapur galiziarren abenturak berridatzi ditu. Abentura idazten baduzu, gaur egun beste sail batera eraman behar duzu, gaur egungo abenturaren sailera eraman eta markoa ordezkatu. Hori egiten du Am-



manitik (*No tengo miedo*) bahiketa baten testuigurua Italiako hegoaldeko lurralde oso txiroan jarriz. Eta, nire ustez, hori egitean ez da beste ezer saiatzan ari, alegia, nire ustez abentura egiten ari da.

Zeri deitzen diogun abentura. Aingeruk esan duenarekin ere bat nator. Gaurko abentura asko nobela bezala hasi dira eta ondoren zinemarako jauzia egin dute, hor ditugu, esate baterako, *Harry Potter* eta *Eraztunen Jauna*. Azken hau, *Harry Potter* irten zen arte, nobelarik salduena zen eta, ez hori bakarrik... Egunkari ingeles batek, *Times* izan zela uste dut, inkesta bat egin zuen mendeko liburua zein zen ikusteko, eta lehenengoa *Eraztunen Jauna* irten zen. Kritikari asko haserretu egin ziren: Nola izan zitekeen haur erregistroan idatzitako liburu bat XX. mendeko libururik aipatuena? Eta hori ez da dena: *Harry Potter* irten zenetik, hala heldu nola haurren salmenta zerrendetan, Ingalaterran, Frantzian, Alemanian,...

*Harry Potter 1, Harry Potter 2, Harry Potter 3,...* izan dira buru astetan zehar. Eta kontuan hartu behar da *Harry Potter* askoz ere literatur handinahi gutxiagoko liburua dela *Eraztunen Jauna* liburuaren aldean. Eta, lehenengo aldiz, kritika ingelesak, Philip Pullman-i eman dio saria *La materia oscura* trilogiaren (*Luces del norte, La daga, El catalejo lacado*) azken liburuagatik. Esan dezadan, bide batez, hau dela nire liburu kutunenetako bat. Protagonista Lyra Belacqua neska da. Liburu lotsagabea da, ongia eta gaizkiaren arteko borroka kontaktzen duena, literatur erreferentzi puntutzat etengabe aipatzen duen Milton-en *Paradisu Galdua* duena, non, asko erraztuz, onak deabruak diren eta paradisuaren mitoaren berri-dazketa egiten duen, gauzak bere lekuan jarriz eta, azkenean, erakusten den paradisuetik egoztea Evaren jakinminari zor zaiola. Pullmanen hau zientzia fikzio edo abentura bezala sailka daitekeen nobela bat da. *Blade Runner* bezala, denik

eta filme eta nobela ikaragarrienetako bat, geurekin eta gainerako jendearekin –ezberdintzat ditugunekin– ditugun harremanak lantzen dituen.

Generoak diluitu egiten dira...

**J. Ballaz:** Xabierren galderari erantzunez, nik uste dut argitaratzen diren liburuen zati handi bat sendotasunik gabeko istorioak dituzten liburuak direla; eskola kontsumorako argitaratzen diren liburuak dira, politikoki zuzenak izan behar dute istorioek, ikasgelan irakurtzeko eta arazo eta nahasmenik sor ez ditzaten. Eta, gaur egun, literatur ekoizpenaren zati handi bat darraikio bide horri. Eskerrak eztabaida hau ez den foro honetan irten, gainerako guztiak irensten dituen eztabaida baita.

Pedagogiak haur askoren artean irakurketa hedatzen lagundu duela ikusten den arren, literatur ekoizpenaren menpekotasun eta presioa ere eragin du eta gaur egun argitaratzen diren liburu asko, anekdota txikiak gai hartuta, eskola kontsumorako idatziak dira.

Edizio gehien izan dituzten liburuetan jartzen badugu arreta, ikusiko dugu ez direla liburu-rik esanguratsuenak, baizik eta ikasgelan gozoki irakur daitezkeen liburuak eta, batzuetan, kopuruak hizpidera ekarri eta 100.000 aletik gora saldutako liburuak aipatzean, ikusten duzu liburu horiek ez direla ekarpen interesgarriena egin dutenak irakurketa mailan edo beste literatur hausnarketa maila batzuetan. Zentzu honetan, abenturak argitaratzen direneko liburu asko sendotasunik gabekoak dira, kontsumo errazerako anekdota txikiak arazo gehiegi eskaintzen ez duen testuinguruan.

Egun hauetan, sari baterako katalanez idatzitako original batzuk berrikusten aritu naiz eta, hauetako asko, kostunbristak dira, oso tonu «karka» dute, eta beste batzuk sendotasunik gabeko anekdotak dira, bereziki eskolarako zuzendutako bildumetan erabiltzekoak. Zama handia du horrek, istorio handiak lastatuak daude ez baita hauek argitaratzeko beharra ikusten edo liburu

hauen banaketaren zamak ekoizpenaren zatirik handiena funtsik gabea izan dadila eragiten duelako.

**Jendartetik:** Argi dago liburu horiek argitaratzen badira, saldu egiten direlako dela. *Zalacáin el aventurero*, adibidez, hainbeste saltzen baldin bada, eskolak sustatzen duelako da. Baina gero, bitartekaririk gabeko neska-mutilak *Amaigabeko istorioa* edo *Harry Potter* bezalakoetara pasatzen dira.

**M. Aleixandre:** Gai honi dagokionez, ez naiz irakurtzen denaren eta ez denaren errua eskolari egoztearen aldeko. Gaur egun badakigu neska-mutilek jasotzen duten informazioaren % 70a ez datorkiela eskolaren bidez; gainerako % 30aren erantzule baino ez da eskola. Niri, eskolan txikitatik irakurle izan naizen honi, irakurtzeko agindu zidaten bakarria Barojaren *Las inquietudes de Shanti Andia* izan zen. Eta urte batzuk behar izan nituen eskolan adreilu bat iruditu zitzaidan liburu honekin berriz senidetzeko, edo *Ben-Hur* liburuarekin, jorketa orduan irakurtzen zigutena. Gaur egun, berriz, Guillermo Brown-en baliokide den *Harry Potter* edo antzerakoak irakurtzen dituzte. Gainera, askoz ere zuzentasun politiko gutxiago dago galizierazko argitaletxeetan gaztelaniazkoetan baino.

**A. Epaltza:** Nik uste dut politikoki zuzena izan behar horrek nolabait zirkuitulaburra sortu duela euskaraz idatzitako abentura nobelaren generoan, izan ere, bitxia da baina, Euskal Herrian argitaratzen diren liburuak ihes egiten diote biolentziari, nahiz eta herri honek duen arazo bat izan; eta ez naiz biolentzia politikoaz bakarrik ari, biolentziaz oro har baizik. Eta biolentzia berezkoa du abentura generoak, ez biolentzia bakarrik, baina osagai hori badu. Haur eta gazte literatura-ri buruzko aurreko biltzarrean, Donostiakoan, idazle batek komentatu zuen mutiko batek hala esan ziola behin: «Euskarazko liburuetan ez da inoiz inor hiltzen». Eta egia da. Zergatik? Haur eta gazte literatura hiperzuzena egin dugulako eta



helduentzako literaturan, berriz, ez da inortxo ere bizirik ateratzen. Jauzi handia dago hor, ulertzen ez dudana; eta hau guztia Euskal Herrikoa bezalako testuinguruan, non, berriz diot, biolentziak, edozein motatakoak, baita etxeok ere, oso isla txikia izan duen. Eta uste dut horrek baduela zerrikusirik abenturen generoak gure artean izan duen garapen urriarekin. Politikoki zuzena denaren zentzua dago, eta ez zentzu «karkan» baka-rrik, baizik eta baita zentzu «progrean» ere, eta honek eragiten du... gai batzuk ez lantzea hobe dela, alegia. Eta honek literatura mota baten garapena zikiratzen du.

**X. Etxaniz:** Denbora gutxi dugu; bi galdera egiteko aprobetxatuko dut. Lehenengoa: Nola konbinatu bertakoa eta globala? Eta bigarrena: Ez al gauden idazleok gazteen gustuetatik gero eta urrutiago?

**A. Epaltza:** Bertakoa eta globala konbinatu, nola egiten den? Bada... konbinatuz, oso erraza. Uste dut guztiok ari garela egiten nolabait. Eta bigarrena: gazteengandik gero eta urrutiago gauden? Nik modu autobiografikoan erantzun dezaket; nire seme-alabak hazten direnean, agian haur eta gazte literatura idazteari utziko diot.

**X. Etxaniz:** Aitona izan arte?

**A. Epaltza:** Nik etxean ditut ereduak, etxean ikusten dut zer irakurtzen duten, zer interesatzen zaien... eta horri esker ez naiz despistatzen edo gutxiago despistatzen naiz...

**J. Ballaz:** Beste modu batera esateko, lokalki idazten dugu beti, baina unibertsalki pentsatuta; eta zentzu horretan ez dut kontraesanik ikusten. Kontatzen diren istorioak zehatzak dira beti eta

pertsonaiengan, tokietan, ... zedarrituak. Lokal-ki idaztea da normala eta unibertsalki pentsatzea da normala, hots, mezua edozein irakurlek jaso ahal izatea beste edozein testuingurutan. Ez dut kontraesanik ikusten.

Beste galderari erantzunez, zail ikusten dut distantziatik gazteentzat idaztea; denborarekin gero eta gehiago nabaritzen duzu distantzia hori eta ez da gainditzen erraza. Hala ere, gazteen argotean idazteagatik ez gara beti horiengandik hurbilago egongo; kontua da gazteek planteatzen dituzten arazoak antzematea, eragitea eta beste modu batera idaztea baina haiek planteatutako galderari erantzunez. Haien hizkuntza berarekin idaztea zaila iruditzen zait niri, nik ez baitarabilt.

**M. Aleixandre:** Erantzun telegrafikoa: irudimena eta enpatia baliogarriak dira. Salgarik Javari buruz idatzi zuen bertan inoiz egon gabe. Nik *A Expedición do Pacífico* idatzi nuen han zehar

bidaiatu aurretik. Uste dut badirela gazteen sentiberatasunera hurbiltzeko beste bide batzuk.

Bertakoa eta globalaren kontua hain galdera zaila iruditzen zait, ezen Galtzagorri proposatzen diodan gai honen inguruko biltzar bat antolatatu eta gonbida gaitzan.

**Jendartetik:** Datorren urtean, beno, 2005ean, OEPLI-k antolatuko du gai honi buruzko biltzar bat Valentzian...

**A. Epaltza:** Azken kontu bat. Nik, helduentzako idazten dudanean, topiko bat den arren, irakurtzea gustatuko litzaidakeen liburua idazten saiatzen naiz eta, haur eta gazte literatura idazten dudanean, seme-alabei gustatuko zaien liburua idazteaz gain, 10-11-12-13-14 urterekin irakurtzea gustatuko zitzaidakeen liburua idazten saiatzen naiz. Merezi duela uste dut.

**X. Etxaniz:** Besterik ez. Eskerrik asko denoi eta 2005ean Valentzian ikusiko dugu elkar.